



(*) Itten: arrastua, pistia

>> EUSKERAZ EGOGI

Deklinabidia (eta V) Birdeklinaziñua

Zer da, ba, birdeklinaziñua? Berbia behin baiño gehixagotan deklinaitia; izan leike deklinaziñoko bi edo hiru kasu eranstia bata bestiaren atzetik. Normalian Nor, Noren eta Nungo kasuak eransten dira. Noren kasua betik birdeklinau leike: *Joxeparena [Joxepana], neriarekin [neriak], lagunarenian [lagunanian]*...

-KO erantsi leikixo kasu askori: *egurrarendako [egurrandako], egurrezko, etxerako, etxerunzko, etxeraiñoko* ... Eta orduan berriz deklinau leike: *egurrarendakua [egurrandakua], egurrezkuakin*...

Birdeklinaziñua, hortaz, kasu askotan ebalten dogunez, ikusi degigun noiz dabilgun:

a) Lagunen edo famelixako pertsona-izenakin, gaitzizenakin edota gaiñerako izen arruntakin: *Juantxorenian, amandriarenian, amarenetik, aitta-amarenera, tio/osaba Pedrorenian, tiarenetik/izekorenetik, alabiarenian, semiarenenera, medikuarenian, no-tarixuarenera*...

b) Establezimendu bat aittaketarunzkuan, baldin eta haren izenak edo gaitzizenak pertsona bateri edo famelixa bateri egitten baxao erreferentzia (*Luis, Migel, Pepeitto, Altuna, Irizar, Ibarrondo, Sillero, Sesiñena*); baiña establezimenduaren izena arrunta edo propixua bada, (*Aker, Iker, Aloña Mendi, Garoa, Oreka, Haritza, Izarraitz*) edo marka komertzial bat bada, (*Ulma, Hiru Thermic, Oñabike, Decathlon*) orduan deklinaziñoko kasu soillak ebalten dittugu: '*Luisenetik nator*' (Luisen tabernatik) edo '*Migelenera noia*' (Migelen panaderixara), baiña '*Ulmatik nator*' edo '*Oñabikera noia*'.



Luisena, Luisenetik, Luisenera, Luisenekuak...



Silleroena, Silleroenetik, Silleroenera, Silleroenekuak... (-re- ezta esaten)

c) Etxe baten gaiñian berbetan gabiltzianian be ebalten da birdeklinaziñua, baiña, orduan be, etxe horretan bizi dan pertsoniaren izena, gaitzizena edo abizena aittaketan bada, (*Lukas, Otsua, Galarza*); bestela, ez. Orduan, '*Lukassenian egon naiz*', (Lukasen etxian) edo '*Galarzareneko askok mediku urten daue*', (Galarza famelixiaren etxeko askok), baiña '*aiuntamentura, alondigara, sindikatura edo cajadeahorrosera noia*'.



Gomendiorena, Gomendiorenetik, Gomendiorenera, Gomendiorenekuak... (-re- ezta esaten)



Galarzarena, Galarzarenetik, Galarzarenera, Galarzarenekuak... (-re- ezta esaten)

d) XIX. eta XX. gizaldixaren hasieran industrializaziñua aillegaitiaz batera, herriko famelixa askok sortutako taillertxuak euren izena hartu euen, hau da, famelixiarena. Taillertxuak edo fabrikatxuak famelixa izena ekuaiñez, deklinaitterunzkuan birdeklinau egitten ziran (Altuna, Arregi, Arrue, Chinchurreta, Garay, Gereka, Ezpeleta, Onraita ...) eta gaur egunian be hala bihar dau.



Altunarena, Altunarenean, Altunarenetik, Altunarenekuak... (-re- ezta esaten)



Chinchurretarena, Chinchurretarenian, Chinchurretarenetik, Chinchurretarenekuak... (-re- ezta esaten)

e) Herriko zenbait etxe dotore izentaitteko be birdeklinaziñora joten dogu, baldin eta etxia pertsona edo famelixa izen batekin lotuta badago; bestela, ez. Hortaz, 'Garayrenetik nator' edo 'Donpedrorenekuak Bilbora fan ziran bizi izatera', baiña 'Goizeko izarrekuak kanpua dira' edo 'Ibargira noia' edo 'Lauaizetatik nator'.



Garayrena [Garayñena], Garayrenetik, Garayrenera, Garayrenekuak... (-re- ezta esaten)



Donpedrorena [Donpedruena], Donpedrorenetik, Donpedrorenera, Donpedrorenekuak... (-re- -ue- bihurtetan da)



Oñati Irudiak, Arrasate Argitan Kultur Elkartea, 2005

Hortaz, goguan hartu:

OKER	ZUZEN
<i>Chinchurretan pasau da hori</i>	<i>Chinchurretarenian pasau da hori</i>
<i>Keia Garaytik dator Garayn egingo dira etxe barrixak</i>	<i>Keia Garayrenetik dator Garayrenian egingo dira etxe barrixak</i>
<i>Altunakuak Txopekuan dira</i>	<i>Altunarenekuak Txopekuan dira</i>
<i>Moyuatik egin dostai diar lanerako</i>	<i>Moyuarenetik egin dostai diar lanerako</i>
<i>Oiñetakuak Agapitton, Cayon eta Leten konponketan ziran, eta gaurko egunian Kantuereñian</i>	<i>Oiñetakuak Agapittorenian, Cayorenian eta Leterenian konponketan ziran, eta gaurko egunian Kantuen</i>
<i>Txorin topauko dozu deporterako erropia</i>	<i>Txorirenian topauko dozu deporterako erropia</i>

Oharra: (-re- ezta esaten). Esan: [Chinchurretarian, Garayñetik, Garayñian, Altunarenekuak, Moyuarenetik, Apittonian, Cayonian, Letenian, Txoriñian...]



(*) Itten: arrastua, pistia

>> Hausnarrian

Zaintzaillia eta etxeakoandria



Felisa: Hau da hau neska dotoria, guregana etorri dana! Zein da, ba, zure izena?

Jamile: ¿Me pregunta por mi nombre?

F: Bai, bai, hori!

J: Me llamo Jamile y soy de Colombia

F: Jesusss, lekutatik etorri zara!

J: Sí, allí la situación es muy dura y tuve que salir del país para comenzar una nueva vida.

F: Bueno, bueno. Orain hobeto gagoz, baiña hemen be ez pentsau, ezkara betik bizi izan oraingo moduan; gure aurrekuak be Ameriketara fan bihar izan ziran sasue batian.... Eta zu hemen geldiketako asmuarekin etorri zara?

J: ¿Que si me voy a quedar? ¡Pues no lo sé, puede que sí, puede que no! A mí me gustaría volver algún día a mi país.

F: Bai, egixa da hori, aspaldiko esaeria da: 'nere etxe pobria, Burgos dana baiño hobia'. Eta hemen badakozu famelixarik?

J: ¿Me pregunta por mi familia? Están todos en Colombia, yo aquí estoy sola y no conozco a nadie.

F: Hori be ezta, ba, plana! Lagunak egin biharko zittuke!

J: ¿Qué es lagunak?

F: Amigos esan gura dau horrek.

J: ¡Pero si paso todo el día aquí, con usted, y no veo a nadie!

F: Orduan zergatik etzara faten euskaltegira euskera ikastera? Ondo etorriko xatzu!

J: Pero se me dan muy mal las lenguas y me cuesta mucho estudiar. Además, veo que todos ustedes hablan el español y nos entendemos sin problemas.

F: Ba, hemen, gure etxian bizitteko, ondo etorriko xatzu, eta neretako be oso lagungarria izango da!

J: Pero si no me voy a quedar aquí, no veo por qué tengo que hacer ese esfuerzo.

F: Ez ikasteko pegak ifintten hasten bazara, gura dan beste topauko dozu, baiña zuk eztozu hori pentsau bihar. Ikasittakua hor eruango dozu zeurekin, eztotsu iñork kenduko!

J: ¿Y con quién voy a practicar?

F: Gure etxequakin, behintzat, bai!

J: No sé, no sé, pero quizás haga un esfuerzo

F: Hasi, etzara damutuko!

J: Lo apunto en mi agenda

F: Benetan?

J: Benetan! Prometido!

F: Akordau gero: aginddutakua zor!



(*) Itten: arrastua, pistia

>> URRUSOLAKO KONTUAK (I)

Elizako pontia eta kuadruak

Urrusula auzuak joku eta aposten gaiñian tradiziño luzia izan dau; izan be, bizi guztian era askotako trabesak egin dira auzotarren artian: karta- eta bolo-jokuak jaiero; antxintxika-karrerak, oiñez edo bizikletan, sarrittan; eta, berezi samarrak, noizian behin.

Orainguan auzuan zeresan haundixa emun eben kontu bat kontauko dogu. Urte batian Urrusulako jaixetan, Andramarixetan, etxekuen eta konbidauen artian, mahaikadia eguen baserri baten bazkaritten, eta han egozela jentiak puska bat eran ebenian, elizaren pontiaren kontuak urten eben. Izan be, 1960ko hamarkadan, auzo-eskolia egin zanian, obra haundixak egin ziran, orduko herriko alkatiak eta San Migel parroixako abadiak zuzenduta. Eta sasue hartan han ponte bat eguen, haundixa gaiñera, Oñatiko parroixan daguena baiño txikitxuagua, baiña ederra! Eta obria egin ondoren ponte ha ezkutau egin zan auzoko iñor enterau barik.

Ba, egun hartan, bazkarixa akabo eta gizonak puska bat eranda, pontiaren kontua etara, eta pontia harrapau eueilla baietz eta ezetz hasi ziran. Eta horren gaiñian apostia egin euen, dirua jarritta. Orduan, kontu hori argittu barik ezin zala geldittu eta auzoko bi andra abadiarengana fan ziran asunto hori argiketara. Esan otsain pontiaren kontura apostia egin zala, eta berarekin argittu gura eueilla zer pasau zan harekin. Abadiak, barrez-barrez, 'zuek periodistetarako balixo dozue' esanaz bialdu zittuen. Eurak be hala moduzko barretxo bat egin eta besteriko barik urten euen abadetxetik ezer argittu barik.

Obran ibillittako hargiñarekin amistade haundixa ekuaiñez, harengana be jo euen eta harek esan osten ponte haren billa ez ibiltteko, berak baekixela nun eguen, baiña ezin zeikiela esan. Auzotarren ustez, parroixako klaustruan egon zan. Gaur egun egon leike San Telmon edo alkate harek bere egunian eruateko esan eben lekuren baten. Eta, normala dan moduan, auzuak gurako leke jakin ponte ha nora fan zan.

Auzoko gizonak, apostia egin zanian, esaten euen herriko alkatiak eta "auzoko jauntxuak" beste iñorekin kontau barik ponte eder ha eruan eueilla. Aittatu dogun moduan, elizan obra haundixak egin ziranian, jatorrizko pontia eruan eta haren ordeze beste txiki bat jarri zan, horretarako permisua aurrian ebiltzein jauntxuak emunda, eta ez auzoko jentiak. Hori orduko apostian etzan argittu eta orainddiok be argittu barik dago.

Bestetik, elizan quadro ederrak be baegozen, balore haundikuak, eta 'iñork ezteixen ostu' eruan egin zittuain Bidaurretara, eta han edota Amarako elizan dagozela pentsaitten dau Urrusulako jentiak.

Urrusulako parroixak-elizatik eruandako pieza eder horreik danak nun ete dagoz? Egunen batian bertara bueltauko ahal dira!



San Migel parroixako pontia



(*) Itten: arrastua, pistia

>> URRUSULAKO KONTUAK (II)

Gari kontuak eta gordetegixak

Edadeko auzotar batekin izandako alkarrizketan, hauxe kontau oskun gari kontuak aittatuta:

“Urte osorako etxerako lain gari hartzen giñuan eta batzutan gehitxuago be bai, baiña gerra ostian izan zittuan kontuak; entregau egin bihar izaten zuan, eta etxerako geldiketan zana, hau da, etxian bizi ziranen erabera, haxe bakarrik eruan bihar zuan errotara, ezin zuan eruan tokaitten zana baiño gehixago. Papel edo kartilla bat eukitten giñuan eta han ifintten xuan hainbeste kilo aldiko eta zenbat aldiz eruan zeikien deklarauta heukanaren erabera, eta gehixago ezin zuan eruan. Gaiñetikua entregau egin bihar izaten zuan. Errotak prezinttauta eta kontrolauta euki zitxuain. Gure aittak-eta ixoteko makiña txiki bat ekuain, pentsuetarako ebalten zana, eta gabaz ixoten euen. Harekin ixo-nahaskilla bat urteten euen.



Urrusula auzuaren ikuspegixa

Entregau bihar zan garixa kalkulaitten

xuain baserri bakoitzeko eskritturatan agerketan ziran neurrixen erabera. Baiña horrek problemak sortu zittuan, eta orduko auzo-alkatiak, Barrenetxe Txikiko Pedrok eskatuta, Oñatiko alkatia eta beste hiru edo lau bat gizon etorri zittuan Urrusulara, eta egin zuan billera bat. Kontua zuan guk deklarauta geukan terreno danian ezin izaten zala erein laborerik, soro goixenetan eta baztarretan zati dezentiak geldiketan zittuan erein barik, lurra mehetuta eguelako, etab., eta billera horretan Oñatiko alkatia eta auzotarren artian diskusiño gogorra egon zan: Pedro, auzo-alkatia, alde batetik, eta Oñatikuaren artian, bestetik. Hori gure aittak askotan esaten xuan:

- *Guk deklarauta dakogun terrenotako soruak neurri hori eztakoi* (Pedrok, auzo-alkatiak)
- *Ba, zuek ifiñittakuak dira* (Oñatiko alkatia) (Horren erabera neurketan xuain)
- *Eztagoz labrauta horreik, ezin leike labrau dana* (Pedro, auzo-alkatia, aurrekaldera fanda, gogor erantzun ei txan Oñatiko alkatia)

Danok bilddurrez, orduan etxaguan berba egitterik eta... Orduan etxaguan berba egitterik eta, obedeziu egin bihar zuan, eta aurrekaldera fan eta frente egittia ...”

Bestetik, etxe inguruan edo etxe barruan, garixa-eta gordeteko izaten ziran gordetegixak aittatuta, hauxe esan eben:

“Bai, geurian kamaran, sapaixaren onduan, xaguan beste kamaratxo bat aterik ez eukana, eta sapaittik bueltan sartzen zuan jenerua edo gorde biharrekuok, eskillara bat ifiñi eta sapaixaren ondora igota. Txarrixa be hiltten giñuan, baiña bi ezin zittuan hil; bat egunez hiltten giñuan, baiña bigarrena gabaz eta isilik, eta nunbaitten ezkutau bihar izaten zuan, bistatik kendu, badaezpada be. Orduan, isilik! Orduko pasadizuak nik batzuk xakixat, baiña orduan gerra ondoren zer pasau zan hor ... Bilddurra! Iñork barbarik be ez! Arabatik be ezin zuan garirik ekarri eta estraperluan eta gabaz ibilli zittuan auzotar batzuk, baiña, halako baten, harrapo zitxuain guarda zibillak eta kendu xostiain ekarrein dana, eta irabazittako danori azkenian hutsian.”



>> URRUSULAKO KONTUAK (III)

Haizpeeko lanak

Urrusulatarrek haitz azpira faten ziran bedarretara. Urrusulagarai aldetik hasitta Aitzgaiñeko tubuaren parereraño etxe bakoitzak bere zelaixa eukan, suertia esaten xakona, eta Urrusulako etxe gehixenak ekuain beria. Zelai estuak eta oso malkartsuak ziran eta hango erripetan bedar-lanetan ortozik ibiltten ziran gehixenak, nahiz eta batzuk abarkakin be ibilli. Jaturabe aldeko tubuaren inguruko saillak, berriz, auzo-basuak ziran, geruago saldu ziranak.

Urrusulan leku hari **haizpeeia** esaten xako eta **haitzondua** be bai; eta Araotzen, berriz, **haiznardia**. "Haiznarda" Araozko leku-izen bat da, Aizkorbe auzunian daguena. Lekuari erreferentzia egiñaz, hala esaten daue araoztarrak: "fan nauk/n ixixa haiznarda behera bueltaka".

Terrenuok etxeak izaten ziran, eta, gaur egunian, danak abandonauta badagoz be, bere denporan inportantzia haundixa euki euen. Neurri desbardiñekuak ziran. Batzuen partia edo suertia estutxua zan; beste batzuen, ostera, zabaltxuagua, baina luzieran danonak antzerakuak ziran. Izan be, haitza be ezta leku danetan iguala, hemen igual beheratxuago etorten da, harutzatxuago goratxuago egitten dau, eta Errotakuai tokau xaten gora egitten dauen lekuan sailla eukittia, tremendako sailla, eta garai batzuetan handik Errotako zuloraiño bederatzi biaje, danak be haundi samarrak, eruaten zittuain ganauakin.

Erripa hareittan bedarra ebatia etzan edozein modutako lana izaten; Errotako aittajuna, Bitoriano Madinabeitia, adibidez, ortozik ibiltten zan, eta haren illoba Jose Luis akordaitten da, mutikua zala, aittajunaren ondorian betik eta ..., "koño, neuk be kendu bihar ditxuat oiñetakuak". Kendu zittuan eta baebillen, eta halako baten, zuztar batek, hanka azpittik kriston ebagixa, azpittik, e, hanka azpittik. Hango odola! Eta han, e, hango goiko puntan, e! Oraintxe



Haizpeeko suertia



Urrusulako errotako Bitoriano Madinabeitia, aittajuna, eta, Jose Luis, illobia



Bedar-karriuan kablez Malloetan (Naparroa)

egin xuagu, oraintxe egin xuagu ederra! Mutikua miñez kejaka, baiña hala ta be lotu trapu zahar batekin eta benga, atzera bedar ebaten edo eguena egittera! "Hori izatia hobia izango dok" entzun eta aurrera! Jose Luis mutikua ortozik hasi zan baiña, segiak ebagittako illarrak be egoten dira, eta segittuan kriston ebagixa hanka azpizan. Ha zan odola, ha! Oraintxe egin dogu ederra! Atzera jeitsi eta... zelabait!

Bedarra jeisteko kablia be betik existiu da. Baserri dandanak be ez ekuain. Errotan, esate baterako, ez eguen kablerik; eurak betik ganauakin egin euen bedar-karriua, orainguak eta aurrekuak be bai. Baiña beste etxe batzuk, Barrenetxetan, adibidez, Haizpeetik kabliak ekuain. Orduan, han goixan sendorra egin eta kabletik behera botaten euen bedarra.

Aitzgaiñetik edo Haizpeetik Urrusulara bakoitzak bere kablia eukan. Barrenetxe Haundixak alde batetik, eta Barrenetxe Txikixak, bestetik, bixak ekuain bakoitzak bere kablia. Osiñagakuak be bai eta Erostarbekuak be bai. Eta gero bedar hori botaten zan kablian. Aittatutako azkenengo baserrikuak, hau da, Erostarbekuak traiekto motza ekuain, etxia hurrian ekuailako, eta horregatik hareik bedar-karriuk samurtxuago egitten zittuain.

Kabliok bedar denporan ifiñi eta bedarrak akabaiten ziranian, lehentxuago gerotxuago, etxera batzen ziran, kamarara, sikutara. Horrek bere zera, tolduaren modukua, eukitten eben han kamaran, eta han batzen euen, eta hurrengo bedar-denporia etorrenian, atzera ifiñi, behetik gora tira egiñaz. Hori be lan galanta, portzierto!



(*) Itten: arrastua, pista

>> URRUSULAKO KONTUAK (IV)

Oñatin argixa ifiñi zanekea

Urrusulako auzotarrak hartu-emun estua ekuain abadiarekin eta eliziarekin, eta abadiari betik errespeto haundia eukitten xakon, bera zan 'auzoko gizon jakintsua', eta domeketan meza ondoren urteten eben arkupea edo elizako aterpera, eta geldiketan zan gizonakin berba egiteko. Emakumiak, denpora hartan, ba, etxera, bazkeixa gertaketara edo umiak atendittera edo egin bihar zana egittera. Eta abadiak kontaitten ei eben, ba, astian zihar ze gauza pasau ziran kalia edo beste nunbaiten. Berak bakarrik hartzen eben periodikua. Egun baten baserritar bat bajaitten zanian kalera igoten otsan barripapela, irakurten eben dana, eta gero domekan baeukan zer kontatua.

Eta domeka baten Oñatin argixa ifiñi zaneke kontuaz jardun eta gero, hauxe pasau zan:

San Migel batzuetan ei zan, eta abadia eta berarekin bizi zan mutikua bajau ziran kalera argi elektrikuaren inauguraziñua ikustera, hau da, kaleko argi barrixak ikustera. San Migel egun bat izan bihar zan edo fiestetan, behintzat. Eta gaba zanez, illundu eta gero, ba, lo egin euen Ugarkalden, zeatik abadia Ugarkaldekua zan, eta goizian goiz, atzera oiñez Urrusulara meza ordurako. Eta meza ostian kontau ei eben, ba, Oñatin jai haundia izan zala, jente danak urten ebela kalera eta, hamabittan-edo hasi ziranian eliza danetako kanpaiak jotzen, itxafleruak jaurti zirala, eta horrekin batera argixak ixutu zirala, kaleko argixak. Ez oraingo moduko argixak, e! Ipurtargi batzuk ziran, baiña izan zan, buenooo! Izan zan izugarrizko jaixa, jente dana txaloka, txistularixak, musikia eta dana! Bueno, ba, hori dana kontau ei eben, eta han aldameneko etxeko gizona, ba, oso interesauta esan ei otsan:

- Eta Jauna, baiña hori, berorrek esaten dauen argi hori, zela, zela egin daue, ba?

- Ai, zela egin dauein? Ubaoko urakin!

- Ubaoko urakin?

- Bai, Ubaoko urakin.

Eta gizon horrek hurrengo egunian, goizian goiz, eguna zabaldu baiño lehenago, hartu astua eta bi ontzi haundi, eta hor doia Ubaora. Eta, bueltan, abadiarenian jo eben atia, eta...

- Zer, zer zabiltz, ba, gizona?

- Jauna, ekarri dot Ubaoko ura. Orain zer egin bihar dot nik honekin?



Ubaoko urakin sortutako argindarrari esker ifiñi zittuain kaleko argixak Oñatin



Ubaoko erreka (Santi Mendiola)



>> URRUSULAKO KONTUAK (V)

Andramarixak

Urrusulako jaixak Andramarixak izaten ziran, Agostuaren 15ian eta 16xan, eta oraindiok be halaxe izaten jarraiketan dau. Hamabostian meza nagusixa, bola-jokua, antxintxika-karrera — Garaikotik bueltia, eliza onduan hasitta—, konbidauak be etorten ziran etxietara, eta arratsaldian erromerixia soiñujoliarekin. Hamaseixan, berriz, gaba juergan pasau ondoren, auzoko gaztiak etxerik etxe faten ziran errondan soiñujoliarekin; neskatillak etxian egoten ziran, askotan lo artian, eta zalaparta baten ibiltten ziran soiñekua jantzi eta mutillok ikusteko. Gero auzoko hildadakuen aldeko mezia egoten zan, eta ondoren erromerixia, dantza eta dantza bi egunetan. Horren kontura, dokumentu zaharretan agerketan da elizako maiorala eta auzoko gaztien arteko liskarren baten kontua be: itxuria danez, usarixo zaharrian txistularixa izaten zan jaixetako animatzaillia eta gaztiak, berriz, soiñujolia eskaketan euen.

Denpora batian kinttuak edo soldau fan bihar eueiñak izaten ziran organizadore eta preparatibuak egitteko arduria ekuaiñak. Bezperan piñua bota eta harekin eliza ondoko haitzaren onduan musikuandako kioskua gertatu eta inguruak garbiketan zittuain.

Hona hemen auzoko lagun baten testigutzaia:

“Andramari egunian goizetik hasitta etorten zittuan auzotarrak, konbidauak eta kanpuan bizi ziran famelixa-tartekuak. Goiz erdi aldera izaten zuan Meza Nagusixa, eta, ostian, soiñujolia eta tertulixia, trago batzuk hartuaz; gero, berriz, bazkeittera konbidauakin batera. Arratsaldian errosarixua eta, gero, erromerixia. Etorten zittuan inguruko auzo danetatik: Araotz osua (Urrusulatik be faten gintzuan Araotzera: gure amandria zuan Araozkua eta aitta be bai. Trinidadetan Araotzera faten gintzuan konbidau, batzuk Gernetara,



Ezkerrian Urrusulako parrokiako Andramariren irudixa.
Eskuman Andramari eguneko Meza Nagusixa



Meza Nagusi osteko aurrezkua



amandriaren jaixotetxera, eta, beste batzuk, Otalaara, aittarenera; eta Urrusulako Andramarixetan hango jentia etorriko zuan gurera konbidau. Izaten zuan berandu jaixotako bildotsen bat-edo, egoten zuan gordeta Andramarixetarako, eta hola moldaitzen gintzuan jatordu hobatxuagua egitteko). Andramarixetan danak etorten zittuan, baita Zañartu auzokuak be, Urubarri aldekuak be bai, Urrusula garaikuak —honeik, izatez, Aretxabaletako Korueta auzokuak dittuk, baiña Urrusulan egitten xuin bizimodu dana, mezetara, eskolara, lagunak... Aretxabaletan papeleuak-eta, kontribuziñuak pagau eta holako lanak egittera bakarrik—. Koruetatik be etorten zittuan eta geu be faten gintzuan Santiagotan hara. Neskaak

gutxiago etorten zittuan, orduan etxuain samur urteten etxe edo auzo ingurutik. Tabernia Osiñagakuak ifintzen xuin eta Goribar auzoko Joxepatxo haizpeian egoten zuan zerbezia, limonadia, ardaia eta tabernako jeneruarekin. Barkillerua be etorten zuan, Lopez baiño lehenagokua, bere potiakin eta potian karameluak, almendrak-eta ekarten zitxuan, eta ruleta bat eukitten xuan haren gaiñian, eta txakurraundixa ifiñi eta parian geldiketan bazan, barkillua emuten xuan. Bigarren egunian auzokuak izaten gintzuan gehixenok.”

Eta jaiegunen gaiñian preguntauta, haxe aittatu eben:
“Gu soldadutzara fan arte auzuan ibiltten gintzuan domeketan, eta haxe izaten zuan jaieroko jiria:

▲ Urrusulako auzotarrak eta konbidauak Meza Nagusi ostian. Abadiak: Aitta Garayalde frantziskanua eta Don Ziriako Arriaran, gerra ostian bertako abade izandakua.

domeka arratsaldian hiru eta erdittan-edo errosarixua izaten zuan, eta, haren ondoren, gaztiok faten gintzuan Aitzgaiñera. Ha zabalik egoten zuan taberna modura, eta sagardo botillaren bat edo beste eran ondoren, bueltan etorten gintzuan Garaikora, erromerixara. Bixente Osiñagakuak jotzen xuan agoko soiñua eta dantza eta juergia egoten zuan hango larraiñian, illunkara arte. Illunkaran neskaak faten zittuan etxera eta mutillak, berriz, gehixenok barrura jokuan egittera.”





(* Itten: arrastua, pistia

>> URRUSULAKO KONTUAK (VI)

Jokuak eta apostiak

Lehenagoko esaeriak “*jokua ez tala errenta, hoba dala oillua erreta*” esaten badau be, era guztietako joku eta apostiak be izaten zittuan Urrusulan: boluetan, kartetan, antxintxiketan ...

Behin Martzelino eta Franzisko San Pedroko kurtzetik Urrusulara, bizikletiaren eta zaldixaren arteko apostia egin zuan, eta bizikletiak irabazi xuan; zaldixak Lamiategi aldiaren estropozuren bat izan ebela-eta, azkenian, behintzat, bizikletiak irabazi. Zaku-karrera be apostian egitten euen. Osiñagatik Aitzgaiñera antxintxika be egitten zan apostia.

Karta-jokuan be asko egitten zuan, Urrusula horretan betik izan dok famosua, nahiz eta urrusuldar danak be ez izan jokulariak. Baiña kartak, horregatio, betik aldiaren, egun santu guztia kartetan, hori bai, gizonak alde batian eta emakumiak bestian. Briskan, batez be, mezia entzun, soziedadera fan eta berihela jokuan hasi. Soziedadian edo tabernan eraten eueiña hil akaberan ordainketan euein. Beste taberna batzuk be baegozen, bat Osiñagan eta beste bat Garaikuan. Beste leku batzuetan bezalaxe, batzuk batera, eta beste batzuk bestera, baiña, hori bai, guztietan jokua zan inportantiena. Auzuari bizitza emuten otsalako, Garayalde, Arantzazuko fraidiak, auzua jokuan ikustiari meziari beste inddar emuten otsan.

Bola-jokua, berriz, domeka danetan egitten zuan eguraldi onakin, eta horretarako bolaleku onduan xaguan zulo bat eta oraindiok be han xagok ha. Han ifiñtten zuan garrafoi bat, lau, zortzi edo hamasei litrokua, basuakin, juntaitten gintzuan jentia kontuan hartuta, Osiñanagakotik ekarrirta.

Bolotan ekiñaldixa egin ondoren egitten giñuan *kabrak* jokua,—guk hala esaten gitxan— ardaux zeñiek edo zeintzuk pagau bihar euen erabagitteko. Parte hartzen euen bolari danen artian egitten zittuan bi ekipo, bi bolari faten zittuan bakoitza bere ekipua egitten, aldiko bana aukeratuaz txandan: hamasei bazittuan danera, zortzi eta zortzi; hamabi baziran, sei eta sei. Eta ekipo edo talde honeik jokaketan xuain alkarren kontra, eta irabazten eueiñak libre geldiketean zittuan eta bestiak zatittu bi taldetan eta beste joku bat egitten xuain eta berriro irabazten eueiñak libre. Azkenian, joku batzuk egin ondoren, pagaitten xuain lauk, hiruk, bik edo batzuetan jokua azkeneraiño eruan eta batek bakarrik be bai. Egoten zuan aukeria jokitik urteteko edo ez parte hartzeko, baiña kasu horretan urteten ebenak bere partia pagau egitten xuan, eta galtzailiak gaiñetikua pagaitten xuan edo xuain. *Kabrak* esaten gitxan Urrusulan joku honi.



'Mus partida' Ramón de Zubiaurreren margolana



Goixan, Urrusulako bolalekua. Ezkerrian, bolaleku ondoko horman daguen zuloa; bertan ifintten euen garrafoia

>> URRUSULAKO KONTUAK (VII)

Aposte famosua



Hona hemen urrusuldar batek, 1960 inguruan, auzuan egin zan aposte famosu baten gaiñian kontautakua:

Jokuan berotu eta gero apostia ... Osiñagako Joxe zanak eta Martzeliño Antxittenak Aitzgaiñeko tubotik egin euen ezagutu zeuen? Nik hemeretzi urte inguru ñakuan. Martzeliño Antxitta hori zuan gure modukua, nerbixua, nerbixu hutsa, eta bere denporan basuan lanian-ta, gizon gogorra. Osiñagako Joxe zuan, berriz, puska bat hire antzekua, pisu haundixa eta, suabe! Behin akordaitten nauk egin xuain karrera, karrera, hau entzun, e! Olatetik hasi eta Aitzgaiñera uste xuat zala, oker ezpanago. Bikaiña izan zuan, baiña gizon batek kiluak xakuan bastante gehixago, eta orduan bestiari esan txain hik hartu bihar dok harrixa bizkarrian honen kiluak bardinketako. Poltsa edo motxilla baten harrixak hartu, pisua bardin ifiñi eta Aitzgaiñera, e! Olatetik hasi eta Aitzgaiñera tubotik, gaiñera tubotik, Osiñaga Joxe eta Antxitten Martzeliño.

Badakitzu zeñiek irabazi eben?

Martzeliñok! Joxe zan oso tenplaua, oso tenplaua eta pisu haundiko gizona. Bestia zuan, berriz, ziharo kontrakua, txinpartia lakotxia zuan ha, eta harek nago, behintzat, harek irabazi ebela. Hari ifiñi harrixa bizkarrian, eztakit zenbat kilokua, bestiaren kiluak bardinketako, eta segi aurrera!

Hori iri-probetan egitten xuai, irixak pisaitten txuai, eta gero harrixak ifintten txai pisua iguala izateko.

Ba, hor be igual, gizonak izatia, baiña Martzeliño zuan ariña, nere antzekua..., eta Joxe zuan, berriz, pauso motelagokua.

Ba, etzuan lan makala, tubotik gaiñera!

Tubotik holaxe, e!

Zenbat urte eukiko euen hori egin euenian?

Ba, hareik sasuerik onena, zer esango dot, ba? Hogeita hamar urte edo horren inguru, hortik berrogeira-edo.

Orain dala hiru urte igo geben tubotik azkeneko aldiz eta kablia dago obaketako, hiru lagun giñan eta batek esan eben 'lehenengua eta azkena'; orduan, pentsau egizu pisu horrekin...

Bai, bai, pisuarekin. Halakua zan Martzeliño, esandako moduan, igarra eta bizixa, eta Joxe, berriz, zan, ba, gizenagua eta trankillagua. Pisu haundixa eukan, baiña horrek eztau egitten, pisua bardin xoiaian orduan. Kontua da Martzeliño zala gogorra, beraren moduko gogorra, eta harek irabazi otsala apostia!



(*) Itten: arrastua, pista

>> URRUSULAKO KONTUAK (VIII)

Urrusulako Errotia: baiñuetxe izan zan baserrixa

Roberto Altuna

Argazkiak: Roberto Altuna eta Goiena

Urrusula inguruko mendixetatik jasoten diran urak argindarra sortzeko ebalten dira Olateko zentralian. Baiña, hortik aparte, ur sulfuroso horreik osasunarendako eukain bentajiaz jabetuta, Urrusulako Errotan baiñuak emuten hasi ziran. “Bizi guztian izan da etxeko negoziua. Amaren aurretik amandriak be gertaketan zittuen baiñuak. Uraren temperatura neurtu eta baiñua hartzeko puntuan izten eben”, gogora ekarri dau han jaixotako Mari Juana Madinabeitiak.

Aitzgain aldetik datorren errekatxora ailegaitten da ura. Metro gutxira dago depositua. Bi metroko sakoneria dako eta betik dago beteta. “Erreakia ur

gutxirekin datorrenian be, betik dago beteta. Eta ura argi-argixa da”, dixo Madinabeitiak.

Hortik, etxe azpittik, sarrerako iturriraiño doa ura. Sasue batian, eskuko bonbiarekin etxiaren goiko aldera jasoten euen ura, terrazara. “Handik bi bide hartzen zittuen urak: hotza zuzenian baiñera gelara eta berotuko zana kaldarara, beroketako. Gero bixak nahasketan ziran”, aittatu dau.

Famosua zan Urrusulako errotako baiñuetxia. Horregatik, oñatiarrez gain, kanpotik be etorten zan jentia: Mondraguetik, Aretxabaletatik, (Koruetatik-eta) eta baitta Leintz Gatzagatik be. Udanaz bestaldeko banaka batzuk be etorten ziran.

Gehixenak, baiña, gizonaek ziran. Sei bat gizon, komedorian, tertulixan” komentau dau Madinabeitiak.

Egunero baiñu bat hartzen euen. 15-20 miñutukua, uretan leporaiño sartuta. Handik urten, izardixak sikatu eta asko faten ziran uhera ordu laurden bat egotera. Gero jaiki eta armozau. Lehenengo aldixan etorrenari bederatzi egunian bederatzi baiñu hartzeia errekomentaitten xakon. Ondo baeguen, bajau egitten xakon zazpira, bostera be bai, eta beste batzuk egitten euen etorri bizikletan errotara, hartu baiñua, zeozer jan ondorian, eta gero etxera. Baiñua barurik hartzen zan eta, normalian, goizian izaten ziran.

“Aittatutako moduan, asko egun bakarrerako etorten ziran, baiña hiru



Urrexolako Errota baserriaren kanpoaldea

edo bost egun pasaiterra etorritakua
be goguan dittut. Horreindako bi
uheko lau logela gittuan etxian”

Uratsaz betik arrautza ustel usaiña
dakola esan izan da. Zidarra
baltziketan dau; urria, berriz, ez.
Barruak garbiketetan eta aupatsak
botaten lagunketan dau. Azaleko
gaitzak (ezemak, soriasisa,
erlakaiztenak...) osaketako be ondo
etorten da. Erreumiaren kontra be
erremedixo ona da. “Gerriko edo
belauneko miña eukaiñak edo
erreumiarekin egozenak etorten ziran.
Orduan, lan haundixa egitten zan
baserrixan, eta gerritik beherako
miñak arinketara etozenak ziran
nagusi”.

“Uratsak usain fuertia dako, eta hori
askok ezin dau eran be egin! Behin

kaletar bat etorri zan uratsaren
kontuak entzunda eta probau gura
ebela esanaz...

— Uratsa eta uratsa entzunda eta...

— Ba, uratsa, hemen dakogu uratsa!

— Guazen ikustera! Eta hori eran
leike?

— Bai, horixe! Hori askok eraten
daue.

— Orduan, neuk be bai! Beste batzuk
egitten daueiña ezgara oraindiok
egin barik geratu! Nik erango dot
drungo-drungo!

Eran eben eta, haren itto biharra!
Pasau eben ratua, baiña formala, e!”
kontau dau haren anaia Jose Luisek.

Errotakuak, berriz, normal asko
eraten daue, bape kalterik egin barik.

Urrusulako baiñuetxiak 1970era arte
iraun eben baiñuak emuten. Urte

hartako Santiago egun seiñalauan
izan zan zoritxarreko istripuan hango
famelixako hiru lagun hil ziran, ama
eta bi seme-alaba, eta ondorixoz
dana bertan behera itzi bihar izan
euen.

1983ko agustuko uraundittan, baiña,
ur eta lokatz ugari sartu zan eta harek
instalaziño guztiak jota itzi zittuen.
Politto-politto dana bere onera
eruatzen fan dira etxeak. Han dakoi
oraindiok marmolezko bi baiñerak,
eskuak garbiketako palangania,
atseden-gelia, ura beroketako
kaldaria, ur deposittua eta iturrixa.
Urrusulako Errotako bizilagunak
oraindiok be etxae ezezkorik
emuten, noizian behin, baiñu bat
hartzeko tentaziñuari. “Etxekuak, bai”,
dixo Mari Juanak.



Uratsaren deposittua



Eskuko bonbia



Ura beroketako kaldaria



Marmolezko baiñeria



Eskuak garbiketako palangania



Atsedeen-gelia